



Mutrikuko Udala

## Prentsa txostena: 2019.06.1-2

**M**utrikuko Udal Kirol Zerbitzuetatik herriko eragile guztiei:

Hona hemen zuen interesekoa izango delakoan, herriko kirol elkarten emaitzak, sailkapenak eta karteldegia, Gipuzkoako Goi Mailako kirol elkarten emaitzekin batera.



[AZPIMARRAGARRIA: Oihana Kortazar 5. izan zen Zegama Aizkorri mendi lasterketan. Asteburuan errugbian ZUBI Memoriala eta mendiko Arnoko XV. Mendi lasterketa ibilaldia eta Jokoz Kanpo antzerkia MFTren 75. Urteurrenean ospatuko dira.](#)

- 1.- DANOK BAT PELOTAZALE ELKARTEA. ZESTA. Asteburuko emaitzak.
- 2.- MUTRIKU ARRAUN TALDEA. ARRAUNA- TRAINERUEN MUTRIKUKO UDALAREN XX. BANDERA. Sailkapenak.
- 3.- MUTRIKU SOKATIRA TALDEA. HERRI KIROLAK - SOKATIRA lur gainean FINALA 640 kilo.
- 4.- MUTRIKU RUGBY TALDEA. ZUBIKARAIREN III. MEMORIALA. Igandeak 9.
- 5.- BURUMENDI MENDI TALDEA. XV. ARNOKO MENDI LASTERKETA IBILALDIA. Ekainak 9an.
- 6.- ZEGAMA- AIZKORRI MENDI LASTERKETA. Ohiana Kortazar 5.
- 7.- MUTRIKU FUTBOL TALDEA. 75. urteurrena. JOKOZ KANPO antzerki emanaldia kiroldegian. Ekainak 8.

...

- 1.- DANOK BAT PELOTAZALE ELKARTEA. ZESTA. Asteburuko emaitzak.

Iturria: <http://danokbatpelota.blogspot.com.es/>

**ASTEBURUKO EMAITZAK ETA IRUDIAK (Maiatzak 30etik Ekainak 2ra)**

**ZESTA**

### Kadeteak, FINALERDIAK

AIZPURUA (ZUM)	25	24	ALAIN BASTERRETXE
EÑAUT URREISTI	25	23	ERLANTZ URREISTI

### Jubenilak, FINALERDIA

ARATZ MENDIZABAL	25	12	ZUHAITZ ARRILLAGA
------------------	----	----	-------------------

### HERRIARTEKOA

EÑAUT-ALAIN	30	19	ZUMAIA
ZUHAITZ -ARATZ	30	13	ZUMAIA
AITOR-MANCI	21	30	ZUMAIA

### San Pedro txapelketa

ZUMAIA	26	30	UNAX Z.-MANEX A.
--------	----	----	------------------

Informazio gehiago [danokbatpelota.blogspot.com/es/](http://danokbatpelota.blogspot.com.es/)

### 2.- MUTRIKU ARRAUN TALDEA. ARRAUNA- TRAINERUEN MUTRIKUKO UDALAREN XX. BANDERA. Saikapenak.

Iturria: [MUTRIKU ARRAUN TALDEA](#)

Erantsita dituzue pasa den larunbatean Mutrikuko uretan ospatu zen Mutrikuko Udaleko XX. Bandera estropadaren emaitzak.

### 3.- MUTRIKU SOKATIRA TALDEA. HERRI KIROLAK - SOKATIRA lur gainean FINALA 640 kilo.

Iturria: [Euskadiko Herri Kirol Federazioa](#)

### HERRI KIROLAK

### SOKATIRA: Lur gaineko Euskadiko txapelketa

## 640 kiloko FINALA

Aurtengo 640 kiloko txapelak, datorren asteburuan banatuko dira. Horretarako dagoeneko bi jardunaldia ospatu dira, lehena Bilboko Zorroza auzoan maiatzaren 25ean eta bigarrena ekainaren 1ean Fadura-Getxon.

Zorroza eta Fadurako emaitzak:

	ZORROZA 2019/05/25	FADURA 2019/06/01
GAZTEDI "A"	4	3,5
AKELARRE	3	3,5
MUTRIKU	2	2
GETXO	1	1

**Larunbatean (ekainak 8) Erandio Goikoako MARTIARTU auzoan, arratsaldeko 17:30 aurrera**, hirugarrenez lehiatuko dira denek denen aurka 640 kiloko kategorian parte hartzen dauden lau taldeak, **momentuz GAZTEDI "A" da sailkapeneko burua:**

	Berriz + Zorroza
GAZTEDI "A"	7,5 puntu
AKELARRE	6,5 puntu
MUTRIKU	4 puntu
GETXO	2 puntu

### ➔ **EGUTEGIA:**

*Maiatzak 25..... Larunbata..... 640..... ZORROZA-Bilbo (Bi)*

*Ekainak 1..... Larunbata..... 640..... FADURA-Getxo (Bi)*

**Ekainak 8..... Larunbata..... Finala 640..... MARTIARTU-Erandio Goikoa (Bi)**

(\*)

Ekainak 22..... Larunbata..... 600..... AULESTI (Bi)

Ekainak 29..... Larunbata..... 600..... ZORROZA-Bilbo (Bi)

Uztailak 6..... Larunbata..... Finala 600..... FADURA-Getxo (Bi)

Uztailak 14..... IGANDEA..... 560..... S.KRISTOBAL-Erandio  
Goikoa (Bi)

Uztailak 20..... Larunbata..... 560..... FADURA-Getxo (Bi)

Uztailak 25..... OSTEGUNA..... Finala 560..... LAUKIZ (Bi)

Uztailak 27..... Larunbata..... 580 MISTOA..... URDULIZ (Bi)

(\*): Ekainak 15-16 ez dago txapelketarik: zenbait elkarte Alemaniako Goldscheurer herrian egingo den torneo batera joango baitira.

#### **4.- MUTRIKU RUGBY TALDEA. ZUBIKARAIREN III. MEMORIALA. Igandeak 9.**

Iturria: [Mutriku Rugby Taldea](#)

Datorren igandean, ekainak 9, Mutriku Rugby Taldeak antolatuta, 11.00etatik aurrera, ZUBIKARAI III. MEMORIALA ospatuko da San Miguel Futbol Zelaian.

14 urtez azpiko taldeak arituko dira. Getxok 2 talde ekarriko ditu eta Ordiziak eta Mutrikuk bana.

Bukaeran 3. denbora ospatzeko Merkatu Plazan elkartuko dira partaide guztiak.

#### **5.- BURUMENDI MENDI TALDEA. XV. ARNOKO MENDI LASTERKETA IBILALDIA. Ekainak 9.**

Iturria: <http://www.burumendi.org>

Erantsita duzue datorren igandean, ekainak 9, Mutriku Burumendi Mendi Taldeak antolatuko duen XV. Arnoko Mendi Lasterketa - Ibilaldiaren kartela.

Informazio gehiago [www.burumendi.org](http://www.burumendi.org) web gunean.

## 6.- ZEGAMA- AIZKORRI MENDI LASTERKETA. Ohiana Kortazar 5.

Iturria: <http://www.berria.eus>

"...

### **Kilian Jornet eta Eli Anne Dvergsdal garaile Zegama-Aizkorri**

Kilian Jornet kataluniarrak bederatzigarren aldiz irabazi du mendi maratoia. Orain arteko edizio guztiak kontuan hartuta, bigarren denborarik onena egin du Dvergsdalek. Ander Iñarra eta Oihana Kortazar izan dira euskaldunik onenak.

Kilian Jornet kataluniarra eta Eli Anne Dvergsdal norvegiarra izan dira azkarrenak Zegama-Aizkorri mendi maratoiaren 18. ekitaldian, hurrenez hurren, gizonezkoetan eta emakumezkoetan. 10.000 inguruk eman zuten izena, eta dortsala eskuratu duten 500 korrikalari pasatxo abiatu dira irteeratik goizeko bederatzietan. Jornet eta Dvergsdal izan dira aurrenak Zegamako helmuga zeharkatzen: 3:52:47ko denbora egin du lehenak, eta 4:36:05ean sartu da bigarrena. Lehen edizioa zuen norvegiarrak, eta erakustaldi aparta eman du zaleen laguntzarekin. Bero egin du, eta korrikalariak ezin izan dituzte markak hobetu. 50 bat erretiratu egin dira. Baina, ohi bezala, jendetza aritu da kirolariak animatzen. Oñati eta Arantzazu arteko errepidea, esaterako, itxi egin behar izan dute.

Emakumezkoen podiuma horrela geratu da: Eli Anne Dvergsdal (4:36:06), Elisa Desco (4:47:30), eta Amandine Ferrato (4:47:38).

Gizonezkoetan, honakoak izan dira lehen hiru sailkatuak: Kilian Jonet (3:52:47), Bartłomiej Przedwojeswski (3:55:26), eta Thibaut Aronian (3:56:20).

Jornet kataluniarra faborito zen gaurkoan gizonezkoen proban. Badu esperientzia: bederatzigarren garaipena du Zegama-Aizkorri. Atarrabetan (13. kilometroa), Andy Wacker zeukan aurretik, baina 26. kilometrorako aurretik jarri eta hiru minututik gorako abantaila zeraman Jornetek.

Emakumezkoetan ere hutsune nabaria izan da iazko irabazlearena. Ida Nilsson suediarra ez da aritu gaurko lasterketan. Askorentzat, ezustea izan zen iazko Zegama-Aizkorri bikain aritu izana, baina jarraian lortutako emaitzek munduko onenen zerrendan sartu zuten.

Iazko irabazleak eman du gaurko beste albistea. Remi Bonnet suitzarrak utzi egin du lasterketa, Oltzeko kontrol gunera iristean.

Euskaldunen artean, Ander Iñarra izan da lehen gizonezkoa; hamargarren postuan helmugaratu da lezotarra, 4:12:01ko denborarekin. Emakumezkoetan, berriz, Oihana Kortazar izan da euskaldunik onena 4:52:16ko denborarekin, bosgarren postuan sailkatu da elgetarra.

..."

Zorionak Oihana!!

**7.- MUTRIKU FUTBOL TALDEA. 75. urteurrena. JOKOZ KANPO antzerki emanaldia kiroldagian. Ekainak 8.**

**Iturria: Mutriku Futbol taldea.**

Datorren larunbatean, ekainak 8, Mutriku Futbol Taldearen 75. Urteurreneko ekitaldien barruan JOKOZ KANPO antzerki emanaldia eskainiko da udal kiroldagian.

Ordua: 20.00etatik aurrera.

Prezioa: 3 euro.

Aktoreak: Joseba Apaolaza, Asier Sota eta Asier Hormaza.

Zuzendaria: Anartz Zuazua.

Erantsita duzue kartela.

Aste ona izan!!